

## OFELIA TEJERINA

Internautaren defendatzailea



Bakarrik arriskuaren aurrean. Halaxe sentitzen dira milaka herritar Internetera sartu nahi dutenean. Film klasikoan ez bezala, ordea, eremu birtualean badira legeak. Eta horiek betearazteko sheriffa ere bada, Gary Cooper gaurkotua. Ofelia Tejerina abokatu madrildarra da, Internautaren defendatzaile eta Teknologia Berrietan aditua. Haren esaten, gauzak bere onetik atera ez daitezken, aski litzateke nabigatzaileek zuhurtasun apur batez jokatu balute, eguneroko gauzetan egiten duten bezala.

**Zertan dabil abokatu bat legerik gabeko eremu batean?**

Horixe bera galdetzen didate fakultateko kideek. Zerbait berria ikusi nuen, etorkizuna horri lotuta egongo zela iruditu zitzaidan, eta erakarri egin ninduen.

**Beraz, Internet araututa dago.**

Bai. Eta aurrerantzean egin beharko diren ñabardurak izango dira Interneten gertatzen dena epaitzeko eta ikertzeko ardura eta eskumena dutenen lana arintze eta errazte aldera. Epaiak presuntziaz berezia jaso behar lukete Interneti buruz, baina ez diete ematen.

**Nola erakuts diezaiokegu jendeari Internet erabiltzen?**

Zalantzarik txikiena edukiz gero, saiatu behar genuke jokatzeko kalean egingo genukeen bezala. Adibidez, norbaitek telefonoz deitu eta auto bat eskaintzen digu eta 8.000 euro bidaltzeko eskatzen digu. Kalean hori gertatuz gero, aurrera egingo genuke? Ez.

**Barack Obamak etekin handia atera omen dio Interneti. Espainian,**

“Teknologiarako sarbidea eskubide konstituzionala behar luke”

**Finantza sektorean kontrolik gabe jardun dutelako sortu zaigu egungo krisi ekonomikoa. Internetek ere behar du norbaitek arautu dezan?**

Interneten gertatzen dena, berez, arautua dago; iruzurrak, salerosketak, komunikazioak... , baina ñabardurak egin beharra dago beti, Internet aldatzen ari baita etengabe.

**Badirudi Interneten legeak ez duela agintzen beste zenbait esparrutan bezainbeste.**

Mugarik ez egoteak eta ustezko anonimotasunak legerik eta mugarik ez dagoela pentsatzera eramane dezake jendea. Oso bitxia da, pertsonak konfiantza handiarekin sartzen dira Internetera lehenengo aldian. Uste dute inork ez dituela ikusten. Baina ez da hala. Internetek nola funtzionatzen duen ikasi ahala, jendea ohartzen da ez dela hain anonimoa, eta mugak ere badaudela.

**administrazioa zenbateraino baliatzen da Sareaz?**

Oso gutxi, oraindik ez dio probetxurik eta etekinik ateratzen tresna horri. Asmo handiak ditu: herritarrek Administrazio Elektronikorako sarbidea izatea, baina asmo hutsean geratu da hori. Administrazio Publikoa, gaur-gaurkoz, ez da gai emateko Internetek berak esku-eskura jartzen digun hori.

**Hurrengo urteetan hobetzeko itxuririk badu horrek?**

Gauzak orain dauden bezala, ez. Nik ulertzen dut segurtasun erabatekorik ez dagoela, ez paperean ez euskarri digitaletan, baina segurtasun horrek huts egiten badu, Estatuak eman behar dizkie bermeak herritarrei.

**Eta orain ez ditu ematen berme horiek?**

Oraingoz ez.

**Zure hitzen arabera, ez da komeni Internet erabiltzea...**

Gauza batzuetarako ez. Ni, oraindik behintzat, ez nintzateke fidatuko sektore publikoarekin hark informazio guztia kudeatu dezan... Klik bat egin eta jaiotza agiria eska nezake erregistro zibilean, etxean hartzeko, hori bai. Edo errenta adierazpena Internet bidez ere egin daiteke. Baina Administrazio Publikoak lan eskerga izaten du herritarren datu pertsonalak eta informazioa kudeatzen, eta oso zaila da hori guztia mundu digitalean egokitzea; denbora eskatzen du, eta nik nahiago dut poliki egin dezaten. Gauza batzuekin fidatzen naiz, eta nahi nuke Internet bidez izan daitezken. Adibidez, Administrazioak informazioa bidaltzen badit Internet bidez, hori bikain da, egiteko moduan gaude, baina

ez dute egiten behar den bezala.

**Zer etekin ateratzen diote enpresek Interneti?**

Ahal duten etekin guztia ateratzen saiatzen dira, eta batzuetan, zuhurtziarik gabe jarduten dute. Sustapen kanpainak egitera jotzen dute itsu-itsuan, saltzera, negozio eredu berriak sortzera, telelana egiteko aukera berriak eskaintzera, baina behar baino berme gutxiagorekin, gauza bakarra interesatzen baitzaie: negozioa sustatzea.

**Eta herritarrek nola erabiltzen dute?**

Zuhurtzia falta dute. Baina hori gertatzen da oraintsu hasi garelako Internet erabiltzen, azken bi urteetan bihurtu garelako ohiko erabiltzaile, eta erabateko konfiantzarekin hartzen dugulako oraindik.

**Internetek zergatik du arrisku gehiago, egiten dugun hori mundu guztiaren bistan dagoelako?**

Ez, guk zuhurtzia gutxiago dugulako.

Iruditzen zaigu blog bat argitaratzea gure egunerokoa idaztea bezala dela, gutako edozeinek etxean bere giltzatxoarekin gordeta eduki dezakeen eguneroko horren parekoa dela... Burura etortzen zaiguna botatzen dugu, eta uste dugu gure lagunek soilik irakurriko dutela, eta hori ez da hala.

**Herrialde batetik bestera desberdintasun teknologiko handiak sortzen ari dira, baina herrialde berean ere sor daitezke aldeak. Horrek kezkatzen zaitu?**

Ez. Uste dut guztiok badaukagula modua teknologiarantz iristeko, eta gutxi-asko denok sar gaitzkeela ziberkafe batean eta Internetera konektatu.

**Eta belaunaldiaren arteko aldeak?**

Hor bai, alde izugarria dago. Denborarekin, hala ere, gauzak aldatuko dira. Irakasleak, adibidez, hasi dira Interneten erabiltzen eta aiton-amonak ere bai. Gurasoak, aldiz, sekula ez dira saiatu urrats hori egiten.

**Zer egin daiteke Espainian guzti-guztiak eduki dezaten banda zabalerako sarbidea?**

Zerbitzu unibertsala eta Interneterako konexioa Telefónica-k eskaini behar du, operadore nagusia delako baina ez du gaitasunik hori egiteko, eta erabiltzaileak ezin izaten ditu jaitsi Internetetik ekarri nahi lituzkeen erdiak ere. Sarbidea eskura dugu, enpresa pribatuek eskaintzen digutelako, baina Estatuak esku hartu behar luke eta zerbitzu unibertsal bihurtu banda zabala. Gure elkarteak urte asko daramatza hori eskatzen.

**Eskubide konstituzionala izan behar luke, etxebizitza edo lana bezala?**

Teknologiarako sarbidea eskubide konstituzionala izan behar luke. Kezkagarria da Espainiako zenbait herritan Interneterako sarbiderik ez edukitzea eta operadoreak nahierara ibili ahal izatea izugarritzko gehiegikeriak eginez. Ez da batere normala ni sei hilabetez konexiorik gabe uztea, eta ordaintzeari uzten diodanean zerbitzua ematen ez didatelako, zordunen zerrendan jartzea. Horrexek sortzen ditu desberdintasun edo alde teknologikoak, eta ADSLren prezioak, eta erabiltzaileak Internetera sartzeko izaten ditugun arazoak... Horixe sustatzen dute operadore pribatuek, eta Estatuak horien alde egiten du,

“Interneten, bere buruarengandik babestu behar da erabiltzailea”

“Asmo handiak ditu Administrazioak: herritarrek Administrazio Elektronikorako sarbidea izatea, baina asmo hutsean geratu da hori”

“Pribatutasuna eta intimitatea ez dira Sarearekin hil, erabiltzaileak hil ditu”

utzi egiten die. Ikusi besterik ez dago, adibidez, zer gertatzen ari den 20 megako konexioak saltzen dituztenean: horren % 10a jasota pozik egon behar! Hori ez dago onartzerik.

**Zeinengandik edo zertatik babestu behar dira Sarea erabiltzen dutenak?**

Lehenik eta behin, bere buruarengandik, kalean izaten duen baino konfiantza gehiagorekin jokatzeko Sarean. Esan behar zaio, erosi baino lehen bermeak eskatu behar dituela eta ez ondoren. Enpresa non dagoen jakin behar da eta nola jarri harekin harremanetan arazorik badago. Ez bagara guztiz fidatzen hark eskaintzen duenarekin, internautaren defendatzailearen orrira jo eta han argitu ditzakegu gure zalantzak.

**Nagusiki zer eratako iruzurrak egiten dira Internet bidez?**

Auto salerosketei lotutako iruzurrak izaten dira, edo gezurrezko lan eskaintzak, edo, bankuko kontuekin egiten diren iruzurrak.

**Nola saihestu horiek?**

Zuhurrak izanda. Etxeko giltza norbaiti uzten badiozu, gero ezin diozu inori eskatu barruan zeuden gauzak itzultzeko, salbu eta ez baduzu aseguru bat egina, eta ez dut uste bankuek eskaintzen dutenik aseguruak halako gertakariarentzat.

**Pertsona bati iruzur egiten badiote Interneten zuzentzerik gabe jokatu duelako, ez dauka eskubiderik kalte-ordainik jasotzeko?**

Zuk pentsa ezazu kalean egiten dizutela iruzur, eta amua irensten duzula. Zer eskatu behar diozu zeini? Ez du zentzurik. Hala ere, gertatu izan da bankutik dirua desagertu zaienei diru hori itzultzea, tartean bitartekari bat sartu izan delako eta hura engainatu dutelako. Epaitegiek iruzur egiteagatik zigortu izan dituzte bitartekari horiek; nonbait, behar bezain zuhur jokatu ez, eta gezurrezko lan eskaintza bat egiazkotzat hartu izan dute, eta haiei egozten diete iruzur egin izana, eta behartzen dituzte dirua itzultzera Internet bidez bankuko datuak eman dizkieten pertsoneri. Horrek ez du ez hankarik eta ez bururik, ez legearen ikuspegitik ez logikaren ikuspegitik ere, baina epaitegietan...

**Beraz, zuhur jokatzeko ez badugu eta 'phishing' egiten badigute [gezurrezko**

**web orrian dirua lapurtzeko informazioa ateratzen, dirurik gabe geratuko gara?**

Segur aski, bai. Baina epaitegiak orain ari hasi dira kontu hauekin, eta gerta daiteke dirua itzultzea salaketa bat jarrita.

**Internetek desagerrarazi ditu pribatutasuna eta intimitatea?**

Erabiltzaileak berak egin du hori.

**Internauten Elkarteak egin duen ikerketa baten arabera, hiru erabiltzailetatik bik ez dute bereizten zein ari zaion gezurretan eta zein ez.**

Erabiltzailea plano batetik bestera aldatu da, mundu errealetik mundu birtuale-ra. Zoaz herri txiki batera, eta galdetu adinekoren bati hango zurrumurru berrigarrienak kontatzeko; lehertuko zara. Sinestea errazagoa egiten zaigu, galde-tzea eta aztertzea baino.

**Eta beren borondatearen kontra Interneten protagonista bihurtzen diren pertsonak, zeinek babesten ditu?**

Legeak babesten ditu, irainak baitira. Zurrumurru batekin hasten da guztia. Ricky Martin-en marmeladaren inguruko zurrumurrua, hori Interneten hasi ote zen? Ez zait iruditzen, eta pasatu zen, eta holako zenbat izango ote dira...

**Interneten, kontsumitzailea David gutxitu bat da eta enpresa handiak Goliat are handiagoak?**

Bai, enpresek oso etekin ona ateratzen diote erabiltzaileen konfiantza gehiegiari eta ezagutza faltari.

**Filmak eta musika jaistea pirateria da?**

Saltzea, etekin komertziala lortzea, hori bai. Bestela, ez da pirateria. Delitua egiteko, etekin komertziala behar du. Jabetza intelektualari buruzko araudi zibilaren artikuluren bat hautsiko bagenu, agian, jardun zibil legez kontraktatzat jo lezakete gurea. Gainerakoan, egun egiten dituzten hotsandiko kanpaina horiek, "orain legeak esku hartzen du", "polizia sartuko zaizu etxean" eta gisa-koak, lelokeriak dira eta ideia politikoak.

**Orduan, Espainian beste inon baino pirateria gehiago dagoela entzuten duzunean...**

Barregura sartzeko zait, pirateria, berez, top manta delako. Zertaz ari gara, delituek egiteaz, pertsona baten jabetza eta ekonomia eskubideei kalte egiteaz...

Logikak esaten dit ez garela horretaz ari. Piratakeriak eta delituek hainbesteko galerak eragiten badituzte, horiei jazarri beharra dago, eta salatu. Legez kontrako beste ekintza batzuen ondorio badira galerak, horiek ere jazarri egin beharko dira legeak eskaintzen dituen bitartekoekin, eta zenbaitek nahi adina jazarri ezin badira, agian, zenbait horiek pentsatu beharko dute negozio eredu aldatzeko garaia iritsi dela. Horien sektorea krisiak jota dago, baina ez piratakeriaren erruz, ezpada ez dutelako jakin aldaketa garairerako egokitzen.

**Aldiz, Espainiako Autoren Elkarteak (SGAE) dirua egin eta egin ari da.**

Bai, kanon bat eskuratzen dutelako, krisian dauden gainerako sektoreek ez bezala. Biniloa utzi eta euskarri digitalera igaro ginenean lehen baino asko merkatu zen musikaren negozioa. Baina aurreratu den diru hori, ordea, ez da inbertitu musikaren sektorearen ikerketari eta garapenari begira, I + G delakoari begira. Zergatik bizi gara oraindik biniloarekin lan egingo bagenu bezala? Zeren musikaren sektoreak biniloan funtzionatzen jarraitzen du. Nik ikusten dudanean iragarki bat esanez "erosi nire diskoa", harrituta geratzen naiz. Nik irratia entzuten dut, eta ez naiz joango zure diskoa erostera, abesti bat edo bi ongi sartzeko bazezkit, segur aski joango naiz zure kontzertura, eta gastatuko ditut 200 euro. Madrilgo Gran Vian, inoiz baino musika ikuskizun gehiago eskaintzen dituzte. Musika ez dago krisian. Kanona gehiegikeria bat da. Nire iritziz, sormen falta dago nabarmen eta horregatik dago krisian sektorea, interesik ez dagoelako. Interesak mugiarazten du jendea, eta nik ez badut lanik egin behar bizi izateko, zergatik egingo dut, sasoiaren egoteko?

**Zuk jaisten duzu musika Internetetik?**

Ez, sekula ez.

**Zergatik ez?**

Lantokian ez nagoelako Interneti konektatuta, eta ezin dudalako egin. Baina ezagutzen ditut hori egiten duten pertsonak, eta inoiz edo behin utzi izan dimate zerbait, eta gustatzen bazait, kontzertura joaten naiz. Hemen begiruna behar da, besteenganako begiruna; ni top manta-ren aurka nago, gehiegikeria bat da. //

